
Elections législatives du 5 juin 1988



Suppléant
Arnaud Thicoïpe
Agriculteur
Maire d'Amendeuix-Oneix

Titulaire
Jacques Aurnague
Enseignant

Euskal Herriko botz emaileei

Ipar Euskaldunak Europako lehen demokrazia izanak gara eta gurekin "mintzatzeko" behar da behin onartu hor garela, ba garela. Eta gero "mintzatuko" gara.

Euskal Herria badela onartu

Zenbait mila urte badu, beste asko baino lehen, hemen gure lurrean garela.
Gure mintzaira berezia, euskara badugula.
Gure ohitura eta kultura aberatsa beti bizi dela.
Eta ez gaituzte onartzen.

Alde askotan laborantzari ihesi dohaz, bainan gure gaztek ez dute beldurrik aiten bideari jarraikitzeko.
Alde orotan langabezia ezin garaituz lotsatzen dira bainan euskaldun gazteak herriko baliabideak elgarretaratuz lantegi eta koperatiba berriak sortzen ari dira, hemen, herrian.
Eskola zaharrek ez dute aterabiderik eta traba guzien gatik gure euskal eskolak herritarren indarrez, xutik dauzkagu.
Europako populu gazteena gara eta.
Ez gaituzte onartzen.

Europaren barnean jarri diren muga artifizialak -eta bereziki Euskal Herriaren Iparra eta Hegoa bereizten duen hura- laster erortzekoak dira. Hainitz mintzaira eta kultura bere altzoan hartuko dituen Europa berrian Euskal Herri bezala sartzeko parada badugu, bakean eta zorionean.

Onar bedi Euskal Herria ! Mintza bedi gure Herria !

Electrices et électeurs du Pays Basque.

Ouverture et dialogue avec tous les démocrates, tel est le mot d'ordre aujourd'hui. Mais à nous qui sommes la plus vieille démocratie d'Europe, pour nous offrir un vrai dialogue il faudrait d'abord nous reconnaître.

Reconnaître le peuple basque.

Avec une histoire plusieurs fois millénaire ;
Notre langue singulière ;
Notre culture toujours vivante ;
Nous sommes le plus vieux peuple d'Europe ;
On ne le reconnait pas.

Avec des jeunes agriculteurs qui continuent à s'installer alors qu'ailleurs la montagne se vide ;
Avec des créations d'entreprises -en particulier coopératives- aidées par la collecte d'une épargne populaire qui ont constitué un frein efficace au chômage,
avec une école de la langue basque, l'ikastola qui, financée et soutenue par la population se développe malgré les entraves ;
Nous sommes le peuple le plus jeune d'Europe,
On ne le reconnait pas.

L'Europe, en faisant tomber les frontières artificielles entre les états, notamment celle qui sépare basques du Nord et basques du Sud, nous offre la chance d'exister en tant que peuple tout en participant à la constitution d'un continent multilingue et multiculturel pacifique et prospère.

Si la reconnaissance du peuple basque est la condition d'un vrai dialogue, il est indispensable que celui-ci s'exprime.

Euskal Herria mintzo

Gure Herria maitez eta haren ohorez elgarretaratu gara, gure desbendintasunen gatik, Iparraldeko abertzaleak, bat egiten gaituen Herria zaintzeko.

Kanpotik etorri eta gure Herrian herritartu zaretenei ongietorri egin eta egiten dizuegu. Ez ote ditugu Pouvreau, Moulier, Davant deitzen gure euskal idazle hoberen zenbait. Libertateak zabaltzen ditu ateak. Libro gu bezala nahi ditugu gure auzoko Biarnes eta Kaskoinak eta beste populu guziak.

Orain arte RPRaren gobernuak idor eta gogor, itsuski trabatu baizik ez ditu euskaldunek beren aldetik egin dituzten urratsak. Sozialisten gobemua berriz beti hitz aspertu eta ele ederretan gelditu zaigu, gure ekintza guziak guti etxiz edo gaitzetxiz.

Ekainaren 5an, gure kexua eta berritu nahia adiarazteko botza emaiten dugu abertzale.

Botza eman abertzale

- Euskal Departamendua-Eskualde izaiteko (Baiona hiri nagusi, Maule bigarren). Hegoaldearekin harremanetan sortzeko ere bestalde beharrezko baitugu ;
- Euskararen legeztapena eta euskarak behar dituen eskola, ikastola, gau-eskola, prentsa, irrati-telebista, argitalpen eta baliabide guzien sustengua eta laguntza gobernuaren aldetik ukaiteko ;
- Gure Euskal lurra laborarien laneko tresna eta ez tratularien jokoa izaiteko ;
- Gure herriko inguramenaren eta egoitza ederren errespetua begiratzeko ;
- Herriko mozkinak eta diru iturriak herrian berean baliatuz langabezia garaitzeko ;
- Zindikaten errespetua eta gero lanaren partimena denen artean egiteko ;
- Baionako unibertsitatearen osatzea eta formakuntza aintzinatuen finkatzea ikusteko ;
- Iheslari politikoen estatutua eta iheslarien gure herrian bizitzeko euskobidea zaintzeko ;
- Gobernuak hartu berri dituen erabaki basa batzuen (presoen gaizki erabiltze, herritik urruntze) baztertzeko ;
- Euskal problemari funtseko aterabidea emaitearekin amnistia ardiesteko.

Ekainaren 5ean, botza eman abertzale

Gero, nola nahi ere, hain baita handia egin gei den lana, zatozte lanera maite duzuen Euskal Herria altxatzen gaurdanik hasiak garen guziekin.

Herriaren zerbitzuko gara.

Euskadi Europan
geroan ere Euskaldun

L'expression du peuple basque.

Abertzale, amoureux et fiers de notre nation basque, nous avons décidé de nous unir malgré nos légitimes différences, pour défendre ce qui nous unit tous.

A ceux d'entre vous qui, venus d'ailleurs, se sont fixés dans ce pays, nous souhaitons donner la chance de connaître les vraies valeurs de notre peuple. Dans le passé lointain ou récent d'autres l'ont fait, Pouvreau, Moulier ou Davant sont devenus les meilleurs de nos écrivains. Quand elle est libre, notre société est ouverte. Cette liberté que nous revendiquons ne peut que rejaillir sur les Gascons et les Béarnais, nos voisins, et sur tous les peuples de France.

L'état RPR a systématiquement entravé par des tactiques brutales et terroristes toutes nos tentatives de prise en charge par nous mêmes de nos problèmes. L'état PS a lui aussi freiné le développement des initiatives démocratiques dans notre pays de façon tout aussi efficace.

Le 5 juin, pour que cela change, vous voterez abertzale.

Vous voterez pour :

- la création d'un Département-Région Pays Basque avec préfecture à Bayonne et sous-préfecture à Mauléon, condition indispensable d'autre part à l'établissement de relations économiques, sociales et culturelles avec le Pays Basque Sud ;
- l'officialisation de la langue basque et le financement public de toutes les institutions nécessaires à son développement : écoles, cours pour adultes, presse, radio-télévision, édition ;
- pour que la terre soit outil de travail pour les agriculteurs et non objet de spéculation ;
- pour la protection de l'environnement naturel et humain ;
- pour un investissement sur place de l'épargne locale afin de lutter contre le chômage ;
- pour un partage équitable du travail et le respect des libertés syndicales ;
- pour améliorer la formation professionnelle, par la mise en place de filières techniques et d'une université de plein exercice ;
- pour un statut des réfugiés politiques et le droit pour les réfugiés de vivre au Pays Basque ;
- pour une annulation des mesures d'exception, la levée de l'isolement total de certains prisonniers, un statut de prisonniers politiques ;
- pour une amnistie dans le cadre d'une solution politique d'ensemble du problème basque.

Le 5 juin, vous voterez abertzale,

Mais quel que soit le résultat du scrutin, face à l'ampleur de la tâche qui nous attend, nous vous appelons à rejoindre ceux qui dés aujourd'hui se sont attachés, de multiples façons, à construire ce pays Basque que vous aimez et que nous voulons servir.

Euskadi en Europe
ceux qui créent